


NORA BIDEAN ZTIM BOKAZI OETAKO LAN BIDEAK



GIDOIA:



MONDRAGON
**ZTIM
Hub**

ILUSTRAZIOAK:
Martin Azpilikueta

LAGUNTZAILEA:


Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ekonomia Sustapenean,
Tecnologia eta Landa
Inguruneke Departamentua




ETORKIZUNA
ORAIN

SUSTATZAILEA:


**Mondragon
Unibertsitatea**



EzKomertziala – PartekatuBerdin (by-nc-sa):
ez du baimentzen jatorrizko obraren edo obra eratorri posibleen erabilera komertzialik. Obra deribatuaren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berdinarekin egin behar da.



EGUN ON GUZTIOI. GOGORATZEN DUZUE
ELENE ETA JULEK AURREKOAN GALDETU
ZIZUETELA MUNDU HOBE BAT
ERAIKITZEKO ZEIN EKARPEN EGINGO
ZENUKETEN ZUETAKO BAKOITZAK?




NIK BAI. NAGUSIA NAIZENEAN
SENDAGAIAK SORTUKO DITUT
MUNDU OSOKO GAIKOAK
SENDATZEKO!




NIK ERE AMAREN PAUSOAK
JARRAITUKO DITUT. EGUZKI
PLAKEN INGURUAN IKERTUKO
DUT. ENERGIAREN ALORREAN
IKERLARIA IZAN NAHI DUT!





NIRI GAILU ELEKTRONIKOAK
GUSTATZEN ZAIZKIT, BAINA EZ
DAKIT ZEIN EKARPEN EGIN
DIEZAIOKEDAN MUNDU HOBE
BAT ERAIKITZEKO...













MONDRAGON ASSEMBLY MUNDUKO
ERREFERENTEA DA MUNTAKETA ETA
EKIPO AUTOMATIKOEN ESPARRUAN.
JOSUNEK, ENPRESAKO LANGILEAK,
AZALDUKO DIZUE GEHIAGO. ADI!




ETORRI BARRURA NIREKIN! GU
ADITUAK GARA MUNTAKETA
PROZESUAK AUTOMATIZATZEKO
DISEINUAN, FABRIKAZIOAN ETA
INSTALAZIOAN.



LANTEGI HONETAN IRTENBIDE ONENAK
LORTZEN SAIAITZEN GARA GURE
BEZEROAK HAIEN PRODUKTUAK AHALIK
ETA AZKARRENEAN ETA KALITATE
ONENAN PRODUZITU DEZATEN.



HORRETARAKO, FABRIKAZIO SOLUZIOEN
DISEINUA ETA INGENIARITZA EGITEN
DITUGU LEHENBIZI, AUTOMATIZAZIO
LINEA HORIEK MUNTATU ETA MARTXAN
JARTZEN DITUGU.




ADIBIDEZ?




LABUR AZALDUTA, GURE JARDUERA 3
EREMUTAN BANATZEN DA: EGUZKI
ENERGIA, ENERGIA BILTEGIRATZEA ETA
AUTOMATIZAZIOA



ADIBIDEZ, PANEL FOTOVOLTAIKOAK
PRODUZITZEN DITUZTEN LINEA
AUTOMATIKOAK DISEINATU, MUNTATU
ETA MARTXAN JARTZEN DITUGU MUNDU
OSOKO BEZEROENTZAT.




HURRENGO BATEN BUELTATUKO GARA
DENBORA GEHIAGOKIN ETA PATXADAZ
AZALDUKO DIZUE JOSUNEK EGUNEROKOAN
EGITEN DUTENA, ADOS? ORAIN ORDIZIA
ALDERA ABIATU BEHARRA DAUKAGU




ORDIZIA.

ONGI ETORRI GAZTEOK! GALDERA BAT BOTAKO DIZUET, IA NORK ERANTZUTEN DIDAN ZUZEN: GAUR EGUN, URA ETA ELKAGATAK BEHAR DITUGUN BEZALA, ZEIN BESTE OTNARRIKO ONDASUN ESANGO ZENUKETE ERABILTZEN DUGULA EGUNERO-EGUNERO?



NIK URA ETA ELKAGATEKIN NAHIKOA DAUKAT.

EZ DAKIT...




NOLA BEROTZEN DUZUE EGUNERO GOSARIEN ESNEA? ETA DUTXAKO UR BEROA, NOLA LORTZEN DA? ETA IGOGAILUAK, NOLA IGOTZEN ZAITUZTE?


ENERGIAREN BITARTEZ!




HORI DA! ENERGIA DA GAKOA. ETA HORTIK SORTZEN DA GURE ENPRESA, GOIENER. GURE HELBURUA ZUEK GUZTIOK ENERGIA DAUKAN BEHARRAZ JABETZEA DA, ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARDURATSUA BULTZATZEA.



BATETIK ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ERABILIZ. HAU DA, AGORTEZINAK DIREN ITURRI NATURALETATIK LORTZEN DENA APROBETXATUZ. BAI DUTEN ENERGIA KANTITATEGATIK ETA BAITA BALIABIDE NATURALEN BIDEZ BIRSORTZEKO GAI DIRELAKO ERE.



EGUZKI-ARGIA EDO HAIZEA, ADIBIDEZ, BIAK DIRA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK, ITURRI HORIEK ETENGABE BERRIZTEN DIRELAKO ETA EZ DIRELAKO AGORTZEN. BAINA HORI EZ DA NAHIKOA, OSO GARRANTZITSUA DA KONTSUMO ARDURATSUA BULTZATZEA DENEN ARTEAN, HAU DA, ZENTZUZ ETA NEURRIZ ERABILTZEA ENERGIA.




ZENBAT ALDIZ ESAN DIZUET IKASGELAN ATSEDENALDIRA GOAZENEAN ARGIAK ITZALITA LAGATZEDO? EDO HORTZAK GARBITZEN DITUZUEN BITARTEAN TXORROTA ITXITA MANTENTZEDO?



MILA ALDIZ EGUNERO!

OHITURA HORIEK GUZTIAK ALDATZEKO HELBURUAREKIN SORTU DA GOIENER, ETA ZIUR GUZTION ARTEAN NORK BERE ALETXOA JARRITA, MUNDU HOBE BAT ERAIKITZEKO GAI IZANGO GARELA.



ETA GAURKO BISITEN OSTEAN, GAUR GOIZEAN EGIN DIZUEDAN GALDERAREN ERANTZUN GARBIAGOA DAUKAZUE? ZEIN EKARPEN EGINGO DUZUE BAKOITZAK MUNDU HOBE BAT ERAIKITZEKO?



NI BIZKORRAGO DUTXATUKO NAIZ ETA EZ DUT HAINBESTE UR GASTATUKO BAINUONTZIA BETETZEN.



NIK BEROGAILUA ERABILI BEHARREAN ARROPA GEHIAGO JANTZIKO DUT.

GUZTION ARTEAN LORTUKO DUGU MUNDU HOBE BAT ERAIKITZEA. ETA ZUK IRAKURLE, ZER EGINGO ZENUKE MUNDU HOBE BAT ERAIKITZEKO?



DENBORA-PASA

LETRA ZOPA

Aurkitu itzazu komikian zehar ezagututako enpresen izenak hementxe.

M	M	D	B	Q	Q	I	I	K	B	Y
L	B	V	Y	E	H	K	V	M	M	R
Z	G	W	C	A	U	E	P	P	O	P
T	O	U	J	S	M	R	Z	T	N	N
E	I	L	F	S	L	L	M	V	D	X
M	E	Z	N	E	Q	A	J	M	R	S
S	N	E	K	M	S	N	W	K	A	J
F	E	J	X	B	Q	M	Q	V	G	C
Z	R	X	B	L	K	Y	L	J	O	C
C	W	U	F	Y	E	D	Z	V	N	K
D	Z	L	Y	S	X	B	A	W	H	E



**Mondragon
Unibertsitatea**